

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO UDALA

#### Behin betiko onestea 2022ko aurrekontua eta lanpostu zerrenda

Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez 2022ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da, eta hau da laburpena, kapituluka:

#### Gastuen egoera

GASTUEN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Langile gastuak	165.410,01
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	213.157,50
3. Finantza gastuak	8.367,50
4. Transferentzia arruntak	67.803,00
5. Kreditu orokorra eta aurreikusi gabeko beste batzuk	5.000,00
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Inbertsio errealak	1.144.017,00
9. Finantza-pasiboak	25.500,00
<b>Gastuen aurrekontua, guztira</b>	<b>1.629.255,01</b>

#### Diru sarreren egoera

DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
A) ERAGIKETA ARRUNTAK	
1. Zuzeneko zergak	253.189,03
2. Zeharkako zergak	44.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	54.310,00
4. Transferentzia arruntak	208.845,12
5. Ondare bidezko diru sarrerak	3.000,00
B) KAPITAL ERAGIKETAK	
6. Inbertsio errealak besterentzea	676.000,00
7. Kapital transferentziak	389.910,86
8. Finantza aktiboak	
9. Finantza-pasiboak	
<b>Diru sarreren aurrekontua, guztira</b>	<b>1.629.255,01</b>

Aldi berean, eta bat etorritz apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal honen 2022rako lanpostu zerrenda.

### 2022ko lanpostu zerrenda

#### 1. Karrerako funtzionarioak:

##### 1.1 Estaturako gaikuntzakoak.

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea. Plaza kopurua: 1. Taldea: A1/A2. Tituluak: estatuturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 18. artikuluan xedatutakoa. Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2020ko otsailaren 6a. Lantokia: udaletxea; administrazio egoera: estalia. Dedikazioa: lanaldi osoa. Destino-osagarriaren maila: 26; Betetzeko era: lehiaketa. Berariazko osagarria: 22.874,08 euro.

##### 1.2 Administrazio orokorrekoak.

Eskala: administrariak; azpieskala: laguntzaileak; plaza kopurua: 1; taldea: D; titulazioa: Eskola Gradua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2005eko urtarrila; lantokia: udaletxea; administrazio egoera: estalia. Dedikazioa: lanaldi osoa. Destino-osagarriaren maila: 18. Betetzeko era: lehiaketa. Berariazko osagarria: 13.395,54 euro, gehi 2.863,00 euro diruzaintzako zereginengatik.

#### 2. Korporazioko kideen ordainsariak eta diru esleipenak:

Bat etorritz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, honako hauek dira udalbatzak onetsitako aurrekontuari buruzko udal araudian jasotzen diren kalte-ordainak eta bileretara joateagatiko zenbatekoak:

a) Alkateak urtean 28.295,15 euro jasoko ditu alkatetzari eta udal gobernuari dagozkion lanak betetzeagatik.

b) Osoko bilkura, bilera eta batzordeetan parte hartzeagatik, zinegotziek (alkateak izan ezik) 60 euroko dieta kobratuko dute konpentsazio bezala, joaten diren bilkura bakoitzeko.

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Zambrana, 2022ko urtarrilaren 21a

*Alkate-lehendakaria*

**AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI**